



Berrikuntza Agenda Estrategiko Berria (BAE 2024-2027): Bizitza-luzeraren paradigma berria



Ira. 17 2024

Kod. 019-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 17 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Adinberri SIA udako ikastaroaren lehen edizioa da, EHUko Uda Ikastaroen esparruan. Adinberri-SIA tresnak, Adinberri Fundazioaren Behatokia eta Adimen Aurreratuko Sistemak, zahartzeari eta bizitza-luzerari buruz duen ezagutza eskura jartzea du helburu orokorra, zahartzearen inguruan eragileen ekosistemaren (tokiko, eskualdeko eta nazioarteko mailan) eta, oro har, herritarren artean.

Pertsona guztientzat irekia dagoen tresna hau, Fundazioaren Berrikuntzarako Agenda Estrategikoaren parte da -duela gutxi berrikusita eta elkar eraikita Adinberri ekosistemarekin batera- 2024-2027 aldirako. Gainera, beste tresna batzuekin batera, Berrikuntzako Agenda Estrategiko berri honek, berrikuntzatik erantzun nahi dituen erronka handiak gauzatzeko ibilgailua da. Lehenengo erronka desgaitasunik gabeko bizi-itzaropena handitzea da, erabateko ongizatea ahalbidetzeko eta zentzuzko bizi-proiektu oso bat garatzeko, prebentzioaren eta bizi-ohitura osasungarrien sustapenaren bidez. Erronka helburu hauetan zehazten da:

- Osasun integrala prebenitzea eta sustatzea. Ongizate integrala eta bizitza proiektu osoa eta zentzuduna garatzea ahalbidetuko duten ohitura eta bizimodu osasungarriak sentsibilizatzea eta bultzatzea.
- Adinekoen gaitasun funtzionala mantentzea eta sustatzea.
- Nahi ez diren bakardadeak prebenitzea eta aurre egitea.

Ikastaroaren lehen edizio honetan, Adinberriko **BAE**ren 3 helburu hauei helduko diegu, ikuspegi akademiko, dibulgatzaile, esperimental, berritzaile eta parte-hartzailetik eta Gipuzkoako zahartzearen ekosistemaren erreferentziazko 3 eragilerekin lankidetzan:

Biogipuzkoa, Cita-Alzheimer eta Aubixa Fundazioa.

Helburuak

Adinberriren Berrikuntza Agenda Estrategikoa herritarrekin partekatzea, gizarte osasungarri baten zerbitzura.

Osasuna eta pertsonen gaitasun funtzionala eta harremanetarako gaitasuna sustatzearen inguruko ezagutza eta kontzientziazioa sustatzea.

Antolakuntza



Programa

2024-09-17

09:00 - 09:30	Registro
09:30 - 09:45	<p>“Apertura institucional”</p> <p>Maite Peña Lopez Diputación Foral de Gipuzkoa - Diputada de Cuidados y Políticas Sociales</p>
09:45 - 10:15	<p>“Presentación de la Agenda Estratégica de Innovación 2024/27 de Adinberri”</p> <p>Rakel San Sebastian Beristain Adinberri Fundazioa - Directora General</p>
10:15 - 12:00	<p>“Diálogos Reto 1: promover la prevención de la fragilidad y la dependencia, así como los hábitos de vida saludables para fomentar el bienestar integral de las personas”</p> <p>Presenta los diálogos</p> <p>Ainhoa Becerra Sotelo Adinberri Fundazioa - Responsable de innovación</p> <p>“Diálogo 1: El abordaje de la fragilidad en la práctica asistencial”</p> <p>Itziar Vergara Mitxelorena Biogipuzkoa - Directora científica del Instituto Investigación sanitaria Biogipuzkoa Ivan Antón Rodrigo Osakidetza - Médico Adjunto en Geriátrica el Hospital de Eibar</p> <p>“Diálogo 2: Prevención de la fragilidad cognitiva “</p> <p>Mirian Ecay CITA Alzheimer - Neuropsicóloga. Doctora en Psicología de la Salud Laura Moreno Eguinoa Clínica Josefina Arregui - Neuropsicóloga</p> <p>“Diálogo 3: Soledad no deseada y relaciones sociales”</p> <p>Javier Yanguas Lezaun Director Científico del Programa de Mayores de la Obra Social “la Caixa” . Gerontólogo Laura Coll Planas Universidad de Vic - Profesora del Departamento de Ciencias Sociales y Salud Comunitaria</p>
12:00 - 12:30	Pausa café
12:30 - 13:30	<p>Mahai ingurua: “Soluciones innovadoras que dan respuesta al reto 1 de la Agenda Estratégica de Innovación”</p> <p>Modera</p> <p>Ainhoa Carcavilla Ibarquen SIA Fundación Adinberri</p> <p>Entornos influyentes para un envejecimiento saludable</p> <p>José Luis Zugaza Gurruchaga Achucarro Basque Center for Neuroscience - Investigador principal</p> <p>Transformación de espacios al servicio del bienestar de las personas</p> <p>Olatz Irulegi Garmendía UPV/EHU - Directora del Departamento de Arquitectura de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)</p> <p>SOAF: Servicio de Orientación a la Actividad Física</p>

Maialen Alkorta Zuloaga | ATHLON - Coordinadora del servicio SOAF

BIBE: Proyecto experimental para alcanzar la vida plena en la vejez

Adriana Martínez Sans | Directora de Aptes

Teleasistencia Predictiva

Patricia García Collado | Ayesa-Ibermática - Project Manager

13:30 - 13:45

Itxiera

Rakel San Sebastian Beristain | Adinberri Fundazioa - Directora General

Zuzendaritza



Rakel San Sebastian Beristain

Adinberri Fundazioa, Zuzendaria

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, eta Finantzetako masterra University of Westminsterren (London_1998). Masterra Lidergoan eta Taldeen Zuzendaritzan eta Masterra Merkataritza Kudeaketan. Bere ibilbide profesionala hainbat zuzendaritza-postutatik igaro da, bai industria-arloan, bai GUREAK taldean (degaitasuna duten pertsonentzako lan-aukerak sortzen dituen taldea), Errenteriako Gerontologikoaren Zuzendaritza barne. 2018tik Adinberri Fundazioko zuzendari nagusia da.



Ainhoa Becerra Sotelo

Adinberri Fundazioa, Responsable de innovación


Industria eta Hiri Soziologian lizentziatua da EHUUn (1999). Adinekoentzako Zentro eta Zerbitzuen Zuzendaritza eta Kudeaketako Graduondokoa, ISED - Vic. Unibertsitatean (2004) eta Osasun Publikoko eta Kudeaketa Sanitarioko masterra, INESEM Enpresa Ikasketen Europako Institutuaren eskutik. (2014-2015). Ekintzaileritza esparruan eman zituen bere lehen urratsak eta Letralan, enpresaren ko-sortzailea izan zen (1999) berrikuntza sozial, sanitario eta teknologikoaren alorrean eta bereziki e-health eta telemedikuntza proiektuak bultzatuz. Ondoren (2016-2019), Aubixa Fundazioko proiektu eta programen zuzendaria izan zen, zahartzearen eta Alzheimerren eta beste demenzien esparruan. 2019tik Adinberri Fundazioko (GFA) Berrikuntza arduraduna da.

Irakasleak



Maialen Alkorta Zuloaga

Maialen Alkorta Zuloaga Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoko Saitetan Doktore Espezializatua da, baita Digestio Aparatuko Espezialista ere, eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko goi-kargu bat ere betetzen du. Bere ezagutza eta ibilbide zabalari esker, Digestio Aparatuan arazoak dituzten pazienteen hainbat kasutan modu arrakastatsuan esku hartu ahal izan du, eta horrek medikuntza- eta kirurgia-sektorean izen handiko doktoretzat hartu du.



Ivan Antón Rodrigo

Matia fundazioa. Memoria eta Alzheimerren Unitateko medikuondokoa - Bermingham Ospitalea. Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean, 2006an. 2011n Geriatriako espezialista titulua lortzea. Geriatriako MIR prestakuntza osatu nuen Cardiffeko Unibertsitatean (Gales) 2010ean, eta tarteko zaintzetan edo Intermediate Care-n zentratu nintzen. 2013an, prestakuntza espezifikoa egin nuen Western Ontarioko Unibertsitatean (Kanada), research fellowship in geriatric medicine gisa, eta dual tasking lanak ikasi nituen funtzioa eta kognizioa ebaluatzeko. Gaur egun geriatriako mediku gisa lan egiten dut geriatriako/psikogeriatrico kanpo-kontsultetan, eta Matia Fundazioak diseinatutako komunitateko adineko ahulentzako osagai anitzeko ariketa fisikoaren programaren arduradunkidea/zuzendaria naiz.



Ainhoa Becerra Sotelo

Adinberri Fundazioa, Responsable de innovación

Industria eta Hiri Soziologian lizentziatua da EHU (1999). Adinekoentzako Zentro eta Zerbitzuen Zuzendaritza eta Kudeaketako Graduondokoa, ISED - Vic. Unibertsitatean (2004) eta Osasun Publikoko eta Kudeaketa Sanitarioko masterra, INESEM Enpresa Ikasketen Europako Institutuaren eskutik. (2014-2015). Ekintzailatza esparruan eman zituen bere lehen urratsak eta Letralan, enpresaren ko-sortzailea izan zen (1999) berrikuntza sozial, sanitario eta teknologikoaren alorrean eta bereziki e-health eta telemedikuntza proiektuak bultzatuz. Ondoren (2016-2019), Aubixa Fundazioko proiektu eta programen zuzendaria izan zen, zahartzearen eta Alzheimerren eta beste demenzien esparruan.



Ainhoa Carcavilla Ibarguen

SIIS

Licenciada en documentación por la Universidad de Barcelona, desde 2007 ha estado vinculada al ámbito de la gestión documental, en la Universidad de Barcelona primero (2007-2010) y en el SIIS - Servicio de Información e Investigación Social de la Fundación Eguía Careaga posteriormente, donde ejerce la labor de documentalista y técnico en investigación. Desde 2020, gestiona SIA, el Sistema de Inteligencia Avanzada de la Fundación Adinberri, junto a Matia y Prospektiker.



Laura Coll Planas

Laura Coll-Planas Medikuntzan lizentziatua da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Osasun Publikoan doktorea Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB), "Bakardadea, gizarte-babesa eta adinekoen parte-hartzea osasunaren ikuspegitik" tesiarekin. Bere ibilbide profesionala klinika eta ikerketa geriatrikoa egiten hasi zen Alemanian, eta UABeko Zahartzearen Institutuan jarraitu zuen, nazioko eta nazioarteko ikerketa-proiektuak koordinatzen eta zuzentzen, zahartze osasungarriaren esparruan, ikuspegi biopsikosozial batetik, gizarte-harremanak sustatzeko eta bakardadea arintzeko. 2021etik Universitat de Vic-Universitat Central de Catalunyaoko Gizarte Zientzien eta Komunitate Osasunaren Saileko irakaslea da.



Mirian Ecay

Mirian Ecay neuropsikologoa eta Osasunaren Psikologian doktorea da, eta Neuropsikologia Klinikoko Psikologo Aditu Profesionalaren Akreditazioa du. Bere esperientzia profesionala eta ikertzailea narriadura kognitiboaren prebentzioan, detekzioan eta ebaluazioan oinarritzen da. Estimulazio kognitiboko materialak (ExerCitaâ) garatu dituen eta hainbat udalerritan osasun kognitiboa zaintzeko ExerCitaâLKK programa ezarri duen taldeko kidea da. Dementziaren prebentziorako CITA GO-ON

ikerketa-azterketaren koordinatzailea da, arlo kognitiboaren buru da eta World-Wide FINGERS nazioarteko sareko International Working Group on cognitive outcomes delakoaren parte da.



Patricia García Collado

Ayesa-Ibermática

Project Manager naiz, Aiesan. Informazio Teknologien arloan dudun esperientzia profesionalean, Osasun eta Administrazio Publikoen arloekin lotutako proiektuetan parte hartu dut. Azken urteotan, negozioaren garapenean, proiektuen kudeaketan eta lantaldeen koordinazioan jardun dut. eHealth sektorearen arlo teknologikoan garrantzitsuak eta arrakastatsuak diren proiektuak diseinatu eta gidatu ditut, erakunde publiko zein pribatuentzat. Gaur egun, bi proiektu berritzailetan parte hartzen ari naiz, hala nola telelaguntza prediktiboan, Adimen Artifiziala erabiliz Eusko Jaurlaritzako Sailaren betiON zerbitzurako, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Datu-DatuGunean, Zaintza Herrilab tokiko zaintza-ekosistemen barruan.



Olatz Irulegi Garmendía

Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Saileko Zuzendaria. Arkitekturan Doktorea eta “CAVIAR - Calidad de Vida en Arquitectura” ikerketa taldeko kidea da eta Arkitektura eta Hirigintza esparrutik nahi ez den bakardadeari aurre egiteko ETXELAGUN eta KALELAGUN proiektuen ikerlari nagusia. Bestetik, “OPENLAB - Leading the transition to positive energy neighbourhoods” Horizon 2020-ko ikerketa proiektuaren ikerlari nagusia ere bada (2021-2026). 4 liburu eta 18 artikuluko zientifikoren egilea da.



Adriana Martínez Sans

APTES, Directora

ADRIANA MARTÍNEZ SANS: es licenciada en CC. EE. Y Empresariales, con especialidad en Marketing

por la UNIVERSIDAD DE DEUSTO. Tiene experiencia como analista comercial del ICEX y durante más de 10 años en la Central de Compras de Grupo Eroski. Desde 2010, forma parte de APTES (Asociación para la Promoción de la Tecnología Social), dirigiendo el día a día de la asociación, cuya misión es la de contribuir a mejorar la vida de las personas a través del diseño y la tecnología social. En APTES, Adriana conecta personas y entidades del ámbito tecnológico y de la intervención social; diseña y lidera iniciativas y proyectos desarrollados en coordinación con entidades públicas y privadas de los ámbitos señalados. Estas iniciativas y proyectos aportan soluciones innovadoras que cuentan con un diseño social y se apoyan en tecnología social.



Laura Moreno Eguinoa

Osasun Psikologia eta Neuropsikologiako Masterra (UCM), Neuropsikologian Aditua den Psikologoaren Lanbide Akreditazioarekin. Euskal Herriko Neuropsikologia Elkarteko bazkide fundatzailea eta batzarkidea izan naiz. Josefina Arregui-Felipe Lecea Fundazioa Klinika Psikogeriatrikoan lan egiten dut, batez ere narriadura kognitiboa eta dementzia duten pertsonak ebaluatzeko eta horietan esku hartzeko, eta hauskortasunaren eta zahartze aktibo eta osasungarriaren prebentzioarekin lotutako proiektuetan ere parte hartzen dut.



Itziar Vergara Mitxelorena

Osakidetza

Médico de familia, Máster en Salud Pública por la Universidad de California, Berkeley y Doctora en Medicina por la Universidad del País Vasco. Desde 2022, es directora científica del Instituto Investigación sanitaria Biogipuzkoa (antes Biodonostia). Es miembro de la Red Española de Investigación en Atención Primaria RICAPPS y coordinadora del grupo de investigación en Atención Primaria en el mencionado instituto. Su línea de investigación es la promoción del envejecimiento saludable y el abordaje de la fragilidad en atención primaria.



Javier Yanguas Lezaun

Biologiaren eta Osasunaren Psikologian doktorea, geriatrician aditua., "La Caixa" Gizarte Ekintzaren Adinekoen Programako zuzendari zientifikoa

"La Caixa" Banku Fundazioa, Adinekoak Programaren (Donostia) zuzendari zientifikoa. Psikologiako doktore-titulua lortu zuen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, Neuropsikologia Klinikoko masterra Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Estatistika Metodo Aurreratuen unibertsitate-aditua Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalan-UNED eta MBA Deustuko Unibertsitatean. 10 urtez Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egogain Gerontologia Zentroan lan egin du, eta 20 urtez Donostiako Maria Fundazioan, I+Gko zuzendari eta Matia Gerontologia Institutuko zuzendari gisa. Gaur egun, "La Caixa" Gizarte Ekintzako Adinekoen Programako zuzendari zientifikoa da, eta International Association of Gerontology and Geriatrics for the European Region erakundeko Gizarte Zientzien eta Portaeraren Saileko zuzendaria. Nazioko eta Europako hainbat ikerketa-proiektu zuzendu ditu, eta hainbat unibertsitatetako irakaslea da.



Raker San Sebastian Beristain

Adinberri Fundazioa, Zuzendaria

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, eta Finantzetako masterra University of Westminsterren (London_1998). Masterra Lidergoan eta Taldeen Zuzendaritzan eta Masterra Merkataritza Kudeaketan. Bere ibilbide profesionala hainbat zuzendaritza-postutatik igaro da, bai industria-arloan, bai GUREAK taldean (desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukerak sortzen dituen taldea), Errenteriako Gerontologikoaren Zuzendaritza barne. 2018tik Adinberri Fundazioko zuzendari nagusia da.



José Luis Zugaza Gurruchaga

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) Biologia lizentziatura eta Santiago de Compostelako Unibertsitatean Farmazia lizentziatura egin ondoren, Farmazian doktore gradua lortu nuen 1993an "Ácido oleico y participación de las señales intracelulares tempranas en la proliferación celular inducida por el factor de crecimiento epidérmico" izenburua duen lanarekin. Doktoratu osteko ikerketa Imperial Cancer Research Fund, London, eta Université Paris XI zentroetan bete nuen (1995-2000). Ramón y Cajal ikertzaile bezala Centro de Investigación del Cáncer de Salamanca eta CIC bioGUNE zentroetan aritu nintzen (2001-2008). Iniciativa Andaluza en Terapias Avanzadas-eko, zuzendari adjuntua izan nintzen Sevillan (2009-2010). Ikerbasque Ikerketa Irakasle bezala UPV/EHUrako bueltatu nintzenetik nire ikerketa Seinaleztapen Zelularrean zentratu da, bereziki, Rac GTPasak erregulatzen dituen molekularak karakterizatuz eta transdukzio-seinaleetan betetzen dituzten funtzioak aztertuz.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2024-09-17 ARTE

Matrikula doan	0 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	0 EUR
OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa